

BETELEMENKO ARTZAINAK

Nor zer eta nun diren

AITASO artzain zaharra

NATAN)

ALNER)

AKIBA)

JONATAN)

Johani , artzain gazte bat
Angema I

(Zonbait artzain su baten inguruan berotzen egoki, batzu chitchuketa, betze, batzu gaztain jaten, eta hola...)

NATA N - Nik ere ichtorio bat badakit, joan den neguan Matias zaharrari aditua, gau bezala ardi zain ari ginen gay batez, su baten inguruan...

ABNER - Zoin duk ? zoin ?

NATAN - Bildotcharena !

AKIBA - Hogoi soseko bat joka nezake bildotch lehertu edo hotzak hil batez mintzatuko zaikula

NATAN - Behautzu hortik ! Irri egitekoa dut, ene ichtoria !

DENEK - Errak ba... errak... Emak berehala...

NATAN --Jerusalemen Antonia erraiten dioten dorrea eraikitzen arizuten : badakizue, orai gobernadora egoiten baita ? Hura... Zer nañi langile bazen, alabainan : arotz, hargin, zurgin...

ABNER -erregeren sorgin !

AKIBA - Ago ichilik, hi !

NATAN - Ichaka peontzan ari zan, mortelru- karreon uste dut, eta lanetik legora, harri lawza handi batzuen gainean jarririk, langilek beren othoruntza egiten zuten, ogi eta jaki, zakuan ekharri zutenetik jan eta jan...

Eta badakizue nkk bezain ontsa nolakoá den Ichaka zekhen hori bethini, bibani, eta oro-ni ?- bertzeak ur hotchetik arizirelarik harek chahako alimale bat arno...gordetzen zuen, eta nehorri jasta ere eskaini gabe, churka-churka ari zen chokoan, haur gosea ttittitik bezala.

Chimun, lehenik ohartu baitzen Ichakaren jokari, laguneri erran zioten : " Hitz eta promes dautzuet egun batez ordaina emanen diotala !"

Hain chuchen bildotch bat funditu baitzitzaion azeri arte batean, behar izan zuen hil eta jan. Chimunek bildotchkia ekharri zuen lantegirat eta eguerditan lagun guzleri partitu, salba Ichakari...Ichaka, nehun ez zauken : haragi puchka hoik ikusten zituen, baratzuri zizterrak ageri, bafada goche bat zariotela : begiak argi-argiak zituen, aburina ere ahorat jauzia Segur ezagun zen bildochkia gogotik jastatuko zuela harek ere... Eta chimunek galdegin zion, maltzur-maltzurra : "Errazu, Ichaka maite duzula bildochki hotza ?- Maite dudanetz ? Dudarik baduzquia ?-Orizu, bildochki hortzaren hateko, aski duzu bezperatik erre-araztea !"

DENEK, irri - Ha, ha, hi, hi !...

NATAN - Hango irriak ! Giza-gaizo Ichakak ez zuen holako arraposturik uste !

AKIBA - Ez ahal zitzaien guti gaitzitu !

ABNER - Zer mutjuttékoa !

AKIBA - Kik errak !

AITASO - Eta hik, Johani, ez duk deusik erraiten !

AKIBA - Zertan duk gogoa ?

JOHANI, (ezti-estia) - Deusetan... Hemen beha nago... Pindarrak ikusten ditut ilhaunekin igaiten, eta egurra entzuten hor intzirika, erretzen ari... Oichtion ene buruaré galdeka nindagon, ea norat doatzin gauza pollit horiek, eta gu ere hola suntsitzen girenetz, hiltzeko tenorea heldu denean.....

AITASO - Pentsamendu bitchiak dituk, mutchikoa ! Ezduk holako ametsik atchiki behar... Emak kantuño bat : hobe duk....

JOHANI, (kantuz, bertzek polliki laguntzen dutelarik noiztenka)

Aldapeko sagarraren adarraren puntan,
 puntaren puntan,
 Choria dago kantari
 Chiru-li-ruli, chiru-li, ruli,
 Nork aditzen othe du kantu eder hori !

Zubiburu zelaieko oihanaren zolan,
 Zolaren, zolan,
 Lili bat bada, beilari.
 Chiru-li-ruli, chiru-li-ruli,
 Nork bilduko othe du lili charmant hori !

Mende huntan, jasan dutan bihotzeko pena,
 penaren pena
 Nola behar dut ekharri ?
 Chiru-li-ruli-, chiru-li-ruli,
 Zuk, maitea, har-azu ene pena hori !

ABNER - Kantua ez duk itsusia, bainan ez duk biziki alegera.

AITASO (urrunerat so) -To ! Hantcheko zaldia, hesiari kontra ?
 Ezagutzen duzue ?

AKIBA - Barttoocena da naski !

NATAN - Anbil haren kasatzerat, Johani ! Etcherat hoan dadin !
 Johani badao, eta arrabotsa entzuten dute...

ABNER - Zaldiz mintzogirenez geroz, aditu duzue Apolonen ichtoria ?

DENEK - Ez, ez... konda zak... konda...

ABNER - Kafarnaun eko ondar merkaturan zaldi lasterrak ba omen ziren, eta zaldi lasterkari famatuenetan batto bazen, Apolon erraiten ziotena...greko paganoen jainko faltguari bezala. Bainan jainko faltsu hau etzen asto pullo bat baizik !

DENEK irri - Ha, ha, ha...

ABNER - Beraz kuakin, Jakobe eta kachketa, hiru miserable, sosaren usainik ere ezagutzen ez zutenak, hurbildu ziren lasterketa ko pentzerat, behar zutela zerbait ikhusi, eta kitorik... kitorik sartzeko lanak baitziren ordean ! Heldu dira bada hiru lagunak, lerro-lerro, billeten hartzeko etchola ttipi haren aintzinerat eta hortik pentzeko keetarat. Hor gurea Kuakin, burua gora, ahal bezenbateko jaun-aire bat hartuz, ira gaiten da, erranez boz ezti batekin : "Apolonen Nausia !"
 Keetazainek utzi zuten pasatzerat.
 Jakobek aise atcheman zuen, harek ere, behar zuen gerurra, eta boz idor batekin erran zuen : "Apolonen marechala !" Uxxx

ABNER - Utzi zuten pasatzerat deus travarik gabe.
 Kachketaren aldi zen orai. Buruari hazka hasi zen, Apolonen
 nausiaren eta marechalaren ondotik, ez jakinez zer pentza.
 Bet-betan zerbait jin zitzaion gogorat..."Banuk!"... Bortz
 pasei urhats eginik gibelerat, bulta hartzen du, eta chimista
 bezala iragaiten da keeta zain en artetik, oihu eginez :"
 Apolon ber-bera!"

DENEK (irri) - Ha ! ha ! ha !
 AKIBA - Ez dut gaizki pentsatua !
 NATAN - Hori pentsatu zuenak, ontsa afaldu-eta pentsatu zian
 AITASO - Ez dakizue zer pentsu dutan nik ?
 DENEK - Ez !
 AITA SO - Trichte dela egiaski mundu huntan eremaiten dugun bizia !
 Bethinor nola atchimenen dugun ari gira, elgar-enganatzuz, ez
 baginu bezala aski miseria, gure ezinbertze, eritasun, dolu
 eta holakoeekin.

JOHANI - Ba, ni ere ene burwarekin pentsaketa arinintzen oichtion,
 egurra intzirika ari baitzen, su lamen erdian sofritu balu
 bezala... toki berean entzuten balira oro betan, zofritzen
 duten jende guzien oihuak, kolpatuen uhuri, doluan diremen
 nigar eta hipa, hiltzen ari diremen azken chotinak-oisus !
 zer ikharagarriko harramantza litakeen ! Hiltzeko ere aski
 balitake !

ABNER - Ago ichilik, haurra. Nardatzen gituk hire zozokeriekin !
 Bertzenazere, Jainko maitea Jainko ona duk, zer debru !
 Eta hitz-eman zaukuk madarizione guziak finituko direla egun
 batez. Ez da hala, aitaso ?

AITASO - Ba, hala duk, Abner. Ene aita zenak profeta chahar baten
 kantua bazakian, Mesias hitz-emaiten zaukuna.

JOHANI - Kantua Badakizu ?
 AITASO - Ez dena, ez, bainan huna halere zombait kobla
 Airea : Bazterretik batzterrera...
 Betlehem herri ttipia, oi ethorkizun handia !
 Birjinak duke seme bat, Nausi guzien nausia !
 Jainkba gizon, gizona Jainko ! zer gauza miresgarria !

Mesias, errege jauna, ez duzu zer jan zer edan
 Zer duzu itzez josia juhaitz hortarik dilingan ?
 Huna bet betan hilen artetik nun ziraden pizturikan !

Zuzentasun, amodio, argi eta bozkario
 Jaun horrek ekharriren tu, nehor ez duke hastio;
 O bai bethikotz, hari eskerrak, zorigaitzari adio !
 Bertzerik ez dakit...

NATAN - Gauza ederrak dira, bainan ez othe... ederregiak ?
 ABNER - Errazu, aitaso, sinesten ditutzu ichtorio horiek guziak ?
 Betelemetik holako Salbatzaile bat sortzea, ez da entrabaleko
 gerthakaria !...

AITASO - Zer nahi, duk, muthikoa ! nunbait sorta behar dik :
 hik herria ttipiskoa atchemaiten dukala, lehenago David
 Erregea ere artzain(etchola batetik athera zuian.

ABNER - Funtsean halada !
 A KIBA - Ba, bainan birjina hoí, eta errege horren miseria, hiltzea,
 hobitik jalgitzea, nehoiz ikusi ez diren gauzak dira !

AITASO - Alabainan, gerthakari bakotcha ez duk behin baizik gerthatzen
 giza-gaizoa, edozoin izan dadin !

AKIBA - Ba eta hala duk hori ere...
 ABNER - Eta noizko ditutzu kanbio eder horiek oro ? Uste duzu hemendik

eta zombait urthe barney mundu guzia zuzen eta chuchen ibiliko zaikula, den gutieneko makhurrik gabe.

AITASO - Ez diat sekulan holakorik erran muthikoa :! Ene aita zenak, bainitz ikusia eta ikasia baitzen, erraiten zian : "denbora duk denbora, gauza guzien moldura" Etaeni iduritzen zaitak Mesiasek ez urtheak, bainan mendeak beharko dituela milaka, gizonen biltzeko eta jendetzeko ! Haatik gauza haulen abiadura edo hastapena, nehorik ez zautak kaskotik jaliko, biziki hurbildua dugula !

DENEK - Zertako ? zertako ?

AITASO - Ezagutzen duzue, dudarik gabe, zakarias zaharra ?

NATAN x- Zazpi beleen ithurriaren ondoan egoiten den artzain zaharra ?

AITASO - Ba, hura !

JOHANI - Haren mandoak begi bat beltcha eta bertzea urdina baitu ?

AITASO - Hura eta bera !... Ez da gero nor nahi Zakarias zaharra ! zeruko izarrak, arthaldeko ardiak bezain ontsa ezagutzen ditu gizon horrek, izenak eta oro. Badaki mundik norat ari diregn, eta zer bothere gaitzak dituzten, chitako arroltzeen huts egin arazteko, ala itsas untzi baten uzkailtzeko, ala bortz zangotako aratche baten sor-arazteko !

AKIBA - Eta zuk sinesten ?

AITASO - Ez daukat erranen ene sinestean berri : erraiten dautzuet bakharrik zer duen harek irakurtzen izarren zirrimarretan-Berri berritan Arabiako aldetik izar berri bat ikusten omen du, argi argia, egun guziez, eskualde hauietarat buruz heldu dena : hori ere zerbaiten seinalea izan behar da !

NATAN - Gure aphez bateck ere kondatzen zeukan larunbatean, ba omen dela Jerusalemeko tenploan jakintsun chahar bat, Simeon, zer nahi liburu egin duena: bethi eskaintzetako aldarearen ondoan jarria o omen dago, haur sortu berriak harat ekjartzan baitituzte, ikusteko ea, Jainkoari eskaini haurren artean, ez duenetz Mesias ezagutuko

ABNER - Hala-hala Aser jendakiako emazte batel ere Salbatzailea ikusi gogo du... Andere saindu horrek badituzke orai lauetan hogoi eta hamar urthe hurbil... Orduan...

AKIBA - Geroak erranen du.

II

JONATAN (~~sartzen delarik~~) Gau on, adichkideak !

DENEK - Gau on, Jonatan !

AITASO - Zer da berri Barre hoitan ?

Jonatan - Izialdura bat ona bildu dutala oichtion... Betelemetik hunatekoan, ezagutzen duzue, hantchet, ezkerretarik, ardien harpea ?

DENEK - Ba...

JONATAN - Han iragaitean, zer ikusten dut ? Ilunbeka ibilki, bi arrotz : Gizon bat eta neskatoko bat. Ahapeka bezala mintzo ziren : asto bat bazuten berekin, eta harpean sartu dira esku. argi handi batekin...

AITASO - Zer kara zuten ?

JONATAN - Nik Egyptoko buhami batzuentzat utzi ditud... Eta emekiño hurbildu niz barrandatzeko zer ari ziren : gizonak jateko pochi bat hartu du alportchetarik; othoitza egin dute halere : bainan erran behar dut neskatokak ez duela deusik jan ; biziki nekatua idurizuen; lasto-garba baten gainean jarri da, erdi-etzanik, pausatzeko bezala... Gizonak jatean halako pena batekin so egiten zion bere laguntto hari, eta ogi puchka batzu ere astonoari emaiten ziczkan artetarik...

JOHANI - Jende gisakoak dira beharbada ?

JONATAN -

- JONATAN- Gisakoak ? Ja ja, ez, sobera fida saindu-aire hoieri !
 Jende mindulin holetarik ez uste izan deys onik ! Abisätzerat jin nik
 pitzaitzue kasu egijeko, zuen onetan. Orobat, bihar goizean ardi
 bat edo bildotch bat faltatuko zaitzue...ez baduzue kasu egiten !
- ABNER - Bethi komedia bera mundu huntan ! Bethi bi begiak har maturik orori
 barrandan egon behar !
 (Hain berzzenarekin urrunera aditzen da Eguberriko kantika
 ezti-ezti bat, airea, hitzik gabe : Oi eguberri gana !)
- JOHANI - To ! Zer da hau ? Solnu bat ?
- NATAN, ABNER AITASO- Hala duk !
- AKBA - Nik ez dut fitsik aditzen ! Beharriak tutatu zaitzkitzue naski !...
 Eta, adichkidea, zonbat urthe ditik, hire iduriko, delako erromes
 horrel ?
- JOHATA N- Nik dakita ? Hogoi bat urthe beharbada !
 (Berriz ere kantua esagun)
- AITASO - Aldi huntan haatik ez dut beharri-tutarik ! Oh ! eta... zer ditake
 hor heldu zaikun mamu churia !

III

- (Oro harrituak daude, aingeru bat heien arterat sortzearekin
 argi-argia, kantua bethi aintzina ari delarik...)
- Aingerua- Artzain maiteak, ez izan beldurrik; ez dautzuet minik egiaen !
- AITASO - Nor zaitugu, fagorez, Jauna edo... Anderea !
- AINGERUA- Zerutikako mzeularia !
- JOHANI - Bas-anderea, beharbada ?
- AINGERUA- Ez bas-anderea ez ! Basanderea ez da ametsetan baizik bizitzen,
 eta ez du ametsez bertzerik deus ere ekhartzen !
- AKIBA - Nor zira ba ?
- AINGERUA - Aingerua

(Oro belhaunikatzen dira)

- DENEK - Aingeru bat !
- AINGERUA- Amen, amen, amen !
 Lur-alde, itsaso eta zeruetan
 Goretsia, onetsia eta jauretsia izan bedi
 Orai, gero eta bethi
 Orotako Jaun maitagarri eta zuzen bakharra !
 Amen, amen, amen !
 Chuti zaitzeste, artzainak ! Eta jakizue Jainkoa urrikaldu zaiola
 bere populuari; denborak ethorriak dira; Mesias gau huntan sortu
 da, bildotch baten pare, aberetegi tchar batean.
- AITASO - Eta Jauna, utziko othe gaituzte haren adoratzerat ?
- AINGERUA- Bai, zeren zuek, jende chumek, trochen artetik ere Jainkbaren
 loria asmatulo baituzue. Zuek badakizue Jainkoak, egin ez
 dezakenik ez dela...
- JOHANI - Eba morat goazke, Jaun Aingerua ?
- AINGERUA- Betelemetik hunatekoan ezagutzen duzue, hantchet, ezkerretarik
 ardien harpea ? (Denek Jonatani so) Idiaren eta sst astoaren artean
 haur sorta berrri bat aurkituko duzue, abere-aska batean etzanik.
 Hura da. Adora-zazue
 Amen, amen, amen !
 Lur-alde, itsaso eta zaruetan
 Goretsia, onetsia eta, jauretsia izan bedi
 Orai, gero eta bethi
 Orotako Jaun maitagarri eta zuzen bakharra !
 Amen, amen, amen !
 (Aingerua badao, argia eta kantua histen delarik)

IV

AITASO - Uste gabeko ichtorioa !... Haurrak zoazte, zoazte berechala
erregeren ganat ! Ni chakarregi naiz... Ardiak zainduko ditut...

(Oro badoatzi lehiakara)

Jainko Jauna, ni ez naiz aski azkar izanen gazte hoieri jarraiki-
tzeko, eta zure Mesiasen adoratzeko. Berdin balio du, Jauna;
nahiz ez dudan ikusten, sinesten dut ! Eta zure Semea hemendik
nahi dut aphalki adoratu !

(Belhaunikatzen da)

AINGERUA (agertzen zailo):

O artzain fededuna ! Ikusi gabe sinetsi baituzu, huna nun heldu
nitzaitzun Jainkoak berak igorrig !

Erranen dautzut zer gerthatzen den Betelemeko heian : Jesus
Haur ttipi dibinoa, aingeruz inguratua da; argi eder batek disti-
ratzen du mendi-alde guzian

Bazter- guzietarik artzainak deitu ditugu haur horren oinetarat
eta chendra guzietan lasterka heldu dira harperat buruz...

Harat orduko, belhaunikatzen dira, beren eskaintzak egiten
dituzte, norik bildotx, norik gasna, eta denak kantuz hasten, beren
bozak ~~ka~~ aingeruenekin juntatzen dituztearik...

(Kantua hasten da gero-ta-azkarrago)

Heldu berri guziek nahi dituzte beren othoitzak eta kantuak
juntatu, eta hola-hola doake, erresumaz erre-suma, menderen-mende
Jesusen izena ikasiko duten herreri handi-eta ttipi guzietan...

(Orduan Aingeruak populua ere kanta-arazten du, eta kobla
bururatzen denean, hesten da oihala)

Oi eguberri gaua !
Bozkariozko gaua !
Bozkariatzen duzu
Bihotzetik krichtaua !

---:---:---:---:---:---:---:---:---:---

PIERRE ITHURRALDE
